

4/2024 EBAZPENA, ekainaren 3koa.

RESOLUCIÓN 4/2024, de 3 de junio.

BATZORDEBURUA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

PRESIDENTA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

KIDEA: Nerea García Rodríguez.

VOCAL: Nerea García Rodríguez.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue.

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue.

Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordeak, adierazitako kideek osatutakoak, **EBAZPEN** hau jaulki du [REDACTED] andreak formulatu duen erreklamazioari dagokionez. Erreklamazio hau jarri zuen Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaerari emandako erantzunari buruz. Txostengilea Iñigo Alvear Lekue izan da eta Batzordearen iritzia adierazten du.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, compuesta por las personas integrantes anteriormente detalladas, ha dictado la siguiente **RESOLUCIÓN** ante la reclamación formulada por **DOÑA** [REDACTED] frente a la respuesta dada a su solicitud de acceso a información pública por parte de la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública. Actúa como ponente Iñigo Alvear Lekue, quien expresa el parecer de la Comisión.

AURREKARIAK.

ANTECEDENTES DE HECHO

LEHENENGOA. 2024ko apirilaren 12an [REDACTED] andreak (aurrerantzean [REDACTED] andrea" edo "erreklamaziogilea") informazio publikoa eskuratzeko eskaera egin zion Bizkaiko Foru Aldundiari.

PRIMERO. Con fecha 12 de abril de 2024, **DOÑA** [REDACTED] (en lo sucesivo, indistintamente, "la Sra. o "la reclamante") presentó solicitud de acceso a información pública dirigida a la Diputación Foral de Bizkaia.

Eskaera horren helburua administrariaren kategoriari lotutako enplegu publikoaren azken eskaintzan sartutako plazen ordainsari gordinak ezagutzea zen; eskaera egin zenean horren hautaketa-prozesua garapen-fasean zegoen.

Dicha solicitud tenía por objeto conocer las retribuciones brutas de las plazas incluidas en la última oferta de empleo público relativa a la categoría de administrativa/o, cuya proceso selectivo se encontraba en fase de desarrollo a la fecha de la solicitud.

BIGARRENA.- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak informazio publikoa

SEGUNDO.- La respuesta a la solicitud de acceso a información pública fue remitida por la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública del Departamento de Administración



eskuratzeko eskaeraren erantzuna bidali zuen, hain zuzen ere apirilaren 26ko 393/2024 Ebazpenaren bidez.

Pública y Relaciones Institucionales, a través de su Resolución 393/2024, de 26 de abril.

Ebazpen horrek onartu egin zuen eskaera, eta erreklamazioileari jarraian jasotzen den erantzun hau eman zion:

Dicha resolución admitió la solicitud y proporcionó a la reclamante la respuesta que se reproduce a continuación:

"1. Idazki honen bidez zure eskaerari erantzuten diogu. Indarrean dagoen deialdiko administrarien kategoriako lanpostuen berariazko ordainsariei buruzko datuak honako hauek dira:

"1. Mediante este escrito damos respuesta a su instancia. Los datos de las retribuciones específicas de los puestos de la categoría de Administrativos/as de la convocatoria vigente son los siguientes:

PUESTO	DENOMINACION PUESTO	GRUPO	NIVEL DESTINO	RETRIBUCIÓN ESPECÍFICA
3073	INFORMAD. ATENCIÓN CIUDADANA	C1	18	21.722,15 €
3286	ADMINISTR.GEST. DE TRIBUTOS	C1	18	19.961,43 €
3299	ADMINISTR. DE GESTIÓN	C1	18	19.961,43 €
3440	INFORM.TRIBUT.TELEF.Y TELEMÁT.	C1	18	21.722,15 €
3476	INFORMADOR/A TRIBUTOS "C"	C1	19	21.296,61 €

Datu hauek

<https://gardentasuna.bizkaia.eus/es/ambito?urlTitle=giza-baliabideak> webgunean ere kontsulta daitezke, lanpostuen zerrenda (LPZ) atalean:

Estos datos también pueden consultarse en la web <https://gardentasuna.bizkaia.eus/es/ambito?urlTitle=giza-baliabideak> dentro del apartado Relación de puestos de trabajo (RPT):

(...) "Funtzionarioentzat gordetako lanpostuen zerrenda (2023-2026)" fitxategia deskargatuz.

(...) Descargando el archivo "Relación de puestos de trabajo reservados a personal funcionario (2023-2026)".

2. Horrez gain, eta eskatutako informazioa osatzearen ondoretarako, ordainsariei dagokienez oinarritzko ordainsarien zenbatekoa eta lanpostu-mailako osagarriaren zenbatekoa hartu behar dira kontuan. Biak "25/2024 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan diharduten langileen ordainsarien % 0,5eko igoera gehigarria 2023. urterako onartzen duen Erabakia" ebazpenean argitaratuta daude. Esteka honetan kontsulta daitezke (...)." .

2. Adicionalmente y para completar la información solicitada, en cuanto a retribuciones, deben tenerse en cuenta el importe de las retribuciones básicas y el importe del complemento de destino. Ambas están publicadas en la "RESOLUCIÓN 25/2024, de 23 de febrero, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo por el que se aprueba el incremento complementario del 0,5 %, para el año 2023, de las retribuciones del personal al servicio del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi". Pueden consultarse en el siguiente enlace (...)." .

HIRUGARRENA.- 2024ko maiatzaren 12an [redacted] andreak aurreko ebazpenaren

TERCERO.- Con fecha 12 de mayo de 2024, la Sra. [redacted] interpone reclamación frente a la



aurkako erreklamazioa jarri zuen, bere iritziz ez zitzaizkion eskatutako informazio guztia eman.

LAUGARRENA.- Erreklamazio horren ondorioz Batzordeko idazkariak nahitaezko txostena eskatu zion Herri Administrazioako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, bera baita eskuduna erreklamazioaren xede den gaian.

BOSTGARRENA.- 2024ko maiatzaren 27an Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari atxikitako Antolaketa Zerbitzuak eskatutako txostena igorri zion Batzorde honi, hitzez hitzez-hitz honako hau dioena:

"1.- Joan den apirilaren 12an [REDACTED] [REDACTED] andreak informazio publikoa eskuratzeko eskaera aurkeztu zuen, "oraindik indarrean dagoen administrarien azken deialdian eskainitako plazen ordainsari gordinak ezagutzeko".

2.- Bizkaiko Foru Aldundiko Lanpostuen Zerrendan ez da jasotzen lanpostuen guztizko ordainsaria. Bertan jasotzen diren datuen artean honako hauek daude:

* Sailkapen-taldea, bidezko oinarritzko ordainsariak zehazten dituena.

* Lanpostu-mailako osagarriaren maila.

* Berriazko osagarriaren zenbatekoa.

Koherentziaz, datu horiek dira BIZKAIA GARDENA Gardentasun Atarian jasotzen direnak.

Azaldutakoa oinarritzat hartuta, uste dugu informazio hori eman behar geniola lanpostuen ordainsarietan interesa zutenei.

[REDACTED] [REDACTED] [REDACTED] andreak administrarien azken deialdian eskainitako plazei lotutako lanpostuen ordainsariei buruzko

resolución anterior, al entender que no se le ha facilitado la totalidad de la información solicitada.

CUARTO.- Como consecuencia de dicha reclamación, el secretario de la Comisión solicitó el preceptivo informe a la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, al ser la competente en la materia objeto de la reclamación.

QUINTO.- El día 27 de mayo de 2024, el Servicio de Organización, adscrito a la citada Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública, remite a esta comisión el informe solicitado, con el tenor literal siguiente:

"1.- El pasado 12 de abril, Dña. [REDACTED] [REDACTED] presentó una solicitud de acceso a información pública, a fin de "conocer las retribuciones brutas de las plazas ofertadas en la última convocatoria de administrativos, aún en vigor"

2.- En la Relación de Puestos de Trabajo de la Diputación Foral de Bizkaia, no se recoge la Retribución Total de los Puestos de Trabajo. Entre los datos que en la misma se reflejan, se encuentran:

* Grupo de clasificación, que determina las retribuciones básicas correspondientes.

* El nivel de complemento de destino.

* La cuantía del complemento específico.

En coherencia, éstos son los datos que se recogen en el Portal de Transparencia BIZKAIA GARDENA.

Tomando como base lo expuesto, consideramos que esta era la información que debíamos facilitar a las personas interesadas en las retribuciones de los puestos de trabajo.

Entendiendo que Dña. [REDACTED] [REDACTED] solicitaba información relativa a las retribuciones de los Puestos de Trabajo asociados a



informazioa eskatzen zuen ulertuta, aipatu diren datuak eman zitzaizkion eta, era berean, BIZKAIA GARDENA atarira sartzeko esan zitzaion.

3.- Egiatzatu da informazio hori eskuratzea ez dela erraza, eta gai hori berrikusi egingo da.

4.- Beste alde batetik, azterketa-fasean dago bai LPZn, bai Gardentasunaren Atarian lanpostuen ordainsariei buruzko beste datu batzuk jasotzearen egokitasuna.

Azaldutako guztiaren ondorioz, jarraian eskatutako informazioa ematen da.

las plazas ofertadas en la última convocatoria de personal administrativo, se le facilitaron los datos a los que se ha hecho referencia y se le derivó también a BIZKAIA GARDENA.

3.- Se ha comprobado que el acceso a esta información no resulta fácil, cuestión que será objeto de revisión.

4.- Por otro lado, se encuentra en fase de estudio la idoneidad de reflejar otros datos en materia retributiva de los puestos de trabajo tanto en la RPT como en el Portal de Transparencia.

Como consecuencia de todo lo expuesto, se proporciona a continuación la información solicitada.

LANPOSTUA/PUESTO DE TRABAJO		ORDAINSARI GORDINA/RETRIBUCIÓN BRUTA
KODEA/CÓDIGO	IZENA/DENOMINACIÓN	
3073	HERRITAREI ARRETA EMATEKO INFORMATZAILEA/ INFORMADOR-A DE ATENCIÓN CIUDADANA	42.721,85 €
3286	ZERGEN ADMINISTRARI KUDEATZAILEA/ ADMINISTRATIVO/A GESTOR/A DE TRIBUTOS	40.829,87 €
3299	KUDEAKETAKO ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO/A DE GESTIÓN	40.829,87 €
3440	TELEFONIA ETA TELEMATIKA BIDEZKO ZERGA INFORMATZAILEA/ INFORMADOR/A TRIBUTARIO/A TELEFÓNICO/A Y TELEMÁTICO/A	42.721,85 €
3476	ZERGEN INFORMATZAILEA "C" TALDEKOA/ INFORMADOR/A DE TRIBUTOS "C"	42.721,85 €

Txosten hori Batzorde honi bidali zitzaion, baina ez zaio erreklamazioileari jakinarazi.

Dicho informe ha sido remitido a esta comisión, sin que haya sido notificado a la reclamante.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENA. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren (aurrerantzean, "1/2016 Foru Araua") 27. artikulua bidez sortu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea.

PRIMERO. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia (en adelante, "Norma Foral 1/2016").



Foru Arau horren 29.1.1. artikuluaaren arabera, 2. artikuluaekin lotuta, Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-erakunde autonomoetako, foruko enpresa-erakunde publikoetako, foruko merkataritza-sozietateetako, foru fundazioetako, foru partzuegoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ezesten denean aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza eta funtzionamendu araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren ("128/2016 Foru Dekretua") bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, hau: "a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela-eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera."

BIGARRENA. 1/2016 Foru Arauak 18.1. artikuluan aitortzen du pertsona fisiko eta juridikoek eskubidea dutela informazio publikoa eskuratzeko. Informazio publikoa, Foru Arau beraren 17.2 artikuluaaren arabera, honako hau da: (...) foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (...).

Beraz, arauak informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eremu materiala mugatzen du, haren kontzeptu zabal batetik abiatuta, baina haren irismena mugatzen du, eta haren izaera publikoarekin lotutako bi baldintza betetzea eskatzen du: (a) foru arauak behartutako erakunderen baten esku egotea, eta (b) esleitu zaizkion funtzioak eta eskumenak gauzatzean egina edo lortua izatea.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, de dicha Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio ("Decreto Foral 128/2016"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: "a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016."

SEGUNDO. La Norma Foral 1/2016 reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17.2 de la misma Norma Foral, como: "(...) cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones".

Por tanto, la norma delimita el ámbito material del derecho al acceso a la información pública a partir de un concepto amplio de esta, pero acota su alcance exigiendo la concurrencia de dos requisitos vinculados con su naturaleza "pública": (a) que se encuentre en poder de alguna de las entidades a las que la Norma Foral obliga, y (b) que haya sido elaborada u obtenida en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.



Bestalde, aipatutako arauak informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko muga batzuk ere ezartzen ditu, 1/2016 Foru Arauaren 21. artikulua araberak, sarbidea ukatzeko aukera ematen du, baita eskaerak ez onartzeko zenbait arrazoi ere, foru arau bereko 22. artikulua, baina aplikatu eta interpretatu beharko dira, herritarrek informazioa eskuratzeko aukera izan dezaten.

HIRUGARRENA. Kasu honetan, ez dugu ikusten informazioa eskuratzeko eskaera berariaz ukatu denik; izan ere, interpelatutako sailak eskaera hori onartu du, eta erantzuna eman dio, informazioaren eskatzaileari erantzuteko egokitzat eta nahikotzat jo duen moduan.

Horrek esan nahi du Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailak onartu egiten duela, bere eskumenak eta funtzioak kontuan hartuta, informazio-eskaera eskatutako datuak emateko eskumena duen organoari zuzendu zaiola, eta informazio publikoa dela, 1/2016 Foru Arauaren 18. artikulua emandako definizioaren arabera.

Izan ere, zalantzarik gabe, eskatutako informazioa publikoa da.

Hori beren-beregi aitortzen du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak, zeinaren 119.1 artikulua, e) idatz-zatian, euskal administrazio publikoen ordainsari-sistemaren printzipio orokorren artean honakoa ezartzen duenean: *“Euskal enplegatu publiko guztien ordainsarien gardentasuna eta publikotasuna, ordainsari aldakorak eta produktibitate eta helburuengatik ezarritakoak barne, **helburu izanik herritarrek une oro jakin ahal izatea jasotzen diren ordainsari horiek zenbatekoak diren eta nola banatzen diren”**.*

Ilido beretik, 1/2016 Foru Arauak 11. artikuluan ezartzen duenez, Bizkaiko Foru Aldundiak eta foru-sektore publikoko erakundeek, publikitate aktiboaren arloan agindutakoa betez, nahitaez

Por otra parte, también establece la citada Norma algunos límites al ejercicio del derecho de acceso a la información, a los que se hace referencia en el artículo 21 de la Norma Foral 1/2016, y cuya concurrencia permite la denegación del acceso; y algunas causas de inadmisión de las solicitudes que se recogen en el artículo 22 de la misma norma foral, pero que deberán aplicarse e interpretarse favoreciendo el acceso de la ciudadanía a la información.

TERCERO. - En el presente caso, no nos encontramos, sin embargo, con una denegación expresa de la solicitud de acceso a la información; dado que el departamento ante el que se interpuso ha admitido dicha solicitud y ha dado respuesta a la misma en los términos que ha entendido procedentes y suficientes para satisfacer la pretensión de la solicitante.

Quiere esto decir, que el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales asume que, habida cuenta sus competencias y funciones, la solicitud de información se ha dirigido al órgano competente para facilitar los datos demandados; y que se trata de información pública según la definición que aporta el artículo 18 de la Norma Foral 1/2016.

En efecto, resulta fuera de toda duda que la información solicitada tiene carácter público.

Así lo reconoce expresamente la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco, cuyo artículo 119.1 recoge en su apartado e), entre los principios generales del sistema retributivo de las administraciones públicas vascas, la *“transparencia y publicidad de todas las retribuciones, incluidas las retribuciones variables y las establecidas por productividad y objetivos, de todo el personal empleado público vasco, al objeto de que la ciudadanía pueda conocer en todo momento la cuantía y el desglose de tales percepciones”*.

En idéntico sentido, la Norma Foral 1/2016 establece en su artículo 11 que la Diputación Foral de Bizkaia y las entidades del sector público foral informarán obligatoriamente, en



emango dute lanpostuen zerrenden edo antzeko antolaketa-tresnaren berri, funtzioak eta dagozkien ordainsari-masak adierazita.

Azkenik, komeni da gogoraraztea Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak, zeinaren testu bategina urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen, gardentasuna aipatzen duela bere jarduketa-oinarrien barruan.

LAUGARRENA. Aurreko oinarrian adierazi dugun bezala, eskatutako informazioa emateko eskumena duen organoak eskaera onartu zuen, eta ez zuen adierazi 22. artikuluan ezarritako izapidetzeko ez onartzeko arrazoiak zeudenik, ezta 21.2 eta 20.1 artikuluetan ezarritako informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzeko mugak ere; horregatik, ebazpen honen aurrekarietan adierazitako moduan, erantzun egin zion eskabideari.

Hala ere, [REDACTED] andreak uste du jasotako erantzunak ez dituela kontsultatutako gai guztiak betetzen, emandako datu eta esteketatik ezin izan baitu administrazio-langileen ordainsari gordinei buruzko informaziorik eskuratu, eta, eskaeraren erantzunaren azterketan aurreratu den bezala, egiaztatu da ez dela eskatutako informazio guztia eman, ez behintzat eskatutako zehaztasun-mailarekin.

Hala aitortzen du, antza, informazio-eskaera bideratu duen Bizkaiko Foru Aldundiaren administrazio-unitateak ere; izan ere, aztertzen ari garen erreklamazioari buruzko txostenean azpimarratzen du zaila dela emandako esteketan informazioa eskuratzea, eta adierazten du aztertzen ari direla gardentasunaren atarian ordainsariei buruzko informazio gehigarria jasotzea.

Gainera, eta ebazpen honi gehien eragiten dion atalean, txosten horrek erreklamaziogileak jatorrizko eskaeran eskuratu nahi zuen informazio guztia zehazten du.

cumplimiento de lo preceptuado en materia de publicidad activa, acerca de las relaciones de puestos de trabajo o instrumento organizativo similar, con indicación de sus funciones y las correspondientes masas retributivas

Por último, conviene recordar asimismo que el Estatuto Básico del Empleado Público, cuyo texto refundido fue aprobado mediante Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, enumera la transparencia dentro de sus fundamentos de actuación.

CUARTO. Tal y como hemos señalado en el fundamento anterior, el órgano competente para facilitar la información solicitada admitió la petición sin indicar que concurrieran ni las causas de inadmisión a trámite previstas en el artículo 22 ni los límites al ejercicio del derecho de acceso a la información previstos en los artículos 21.2 y 20.1; razón por la que dio respuesta a la solicitud en los términos señalados en los antecedentes de hecho de la presente resolución..

No obstante, la Sra. [REDACTED] considera que la respuesta obtenida no cubre la totalidad de las cuestiones consultadas, toda vez que de los datos y enlaces facilitados no ha podido acceder a la información sobre las retribuciones brutas del personal administrativo; y, tal como se ha avanzado en el examen de la respuesta a la solicitud, se observa que, efectivamente, no se ha facilitado toda la información solicitada, al menos con el grado de concreción requerido.

Así parece reconocerlo también la unidad administrativa de la Diputación Foral de Bizkaia que ha canalizado la solicitud de información en la medida en que, en su informe relativo a la reclamación que nos ocupa, subraya la dificultad de acceso a la información en los enlaces facilitados y señala que se está estudiando reflejar información adicional en materia retributiva en el portal de transparencia.

Adicionalmente, y en la parte que más afecta a esta resolución, dicho informe detalla en su totalidad la información a la que la reclamante pretendía acceder en su solicitud original.



Aurreko guztia kontuan hartuta, administrazio-unitate eskudunak bere txostenean emateke zegoen informazio gehigarria aurkeztu duenez, erreklamaziogileari igorriko zaio.

Hala ere, arrazoi formalengatik bidezkoa da [REDACTED] andreak egindako erreklamazioa onestea, errekurritutako ebazpenak ez baitzion eskatutako informazio guztia eman, datu partzialak baizik eta informazio osoa Batzorde honetan erreklamazioa jarri ondoren baino ez da eman.

Azkenik, planteatutako gai guztiei erantzunik eman ez zaiela iritziz gero, erreklamaziogileak berriro erreklamazioa jarri ahal izango du Batzorde honetan, epe arruntetan.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzorde honek, honako hau erabaki du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Arrazoi formalak direla-eta, [REDACTED] andreak Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren apirilaren 26ko 393/2024 Ebazpenaren aurka aurkeztutako erreklamazioa onestea; ebazpen horren bidez erreklamaziogileak eskatutako informazioa ematea onartzen zen eta informazio horren zati bat ematen zen.

BIGARRENA.- Ebazpen hau errekurtsio-egileari eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea. Era berean, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

A la vista de todo lo anterior, dado que la unidad administrativa competente aporta en su informe la información adicional que quedaba pendiente de suministrar, se procede a su remisión a la reclamante.

No obstante, procede estimar la reclamación de la Sra. [REDACTED] por motivos formales, dado que la resolución recurrida no le facilitó toda la información solicitada sino tan solo datos parciales; y la información completa solo se ha proporcionado tras la interposición de reclamación ante esta Comisión.

Por último, en el caso de entender que no se ha dado respuesta a todas las cuestiones planteadas, podrá volver a interponer reclamación ante esta Comisión en los plazos ordinarios.

Como consecuencia de todo lo anterior, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda dictar la siguiente:

RESOLUCIÓN

PRIMERO. Estimar por motivos formales la reclamación presentada por DOÑA [REDACTED] [REDACTED] contra la Resolución 393/2024, de 26 de abril, de la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, por la que se admitía y se facilitaba parte de la información solicitada por la reclamante.

SEGUNDO. Notificar esta resolución a la reclamante y a la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales del Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales.



HIRUGARRENA. Erreklamazio honekin batera, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren Antolaketa Zerbitzuak 2024ko maiatzaren 27an jaulkitako txostena aurkezten da, erreklamaziogileari 2024ko apirilaren 12an egindako informazio-eskaerari erantzunez eman zitzaion informazioa osatzen duena.

Txosten horretan erreklamaziogilearen hasierako eskaerari buruz emandako informazioaren osotasunaren aurka egiteko soilik, erreklamaziogileak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du berriro Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzorde honetan, hilabeteko epean.

LAUGARRENA. Gainerakoari dagokionez ebazpen honek, behin betikoa denak, administrazio-bidea agortzen du. Dena dela, beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten denetik eta BI (2) HILABETEKO epearen barruan.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena) 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

Sin./Fdo.: IÑIGO ALVEAR LECUE 2024-06-03
IDAZKARIA ETA TXOSTENGILEA
SECRETARIO Y PONENTE

Sin./Fdo.: NEREA GARCIA RODRIGUEZ 2024-06-03
MAHAIKIDEA
VOCAL

Sin./Fdo.: AMAIA ZURBANO-BEASKOETXEA LARAUDOGOITIA - 2024-06-03
PRESIDENTEA
LA PRESIDENTA

TERCERO. Se acompaña a la presente reclamación informe emitido por el Servicio de Organización de la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública, el día 27 de mayo de 2024, por el que se completa la información que se facilitó a la reclamante en respuesta a su solicitud de información pública de 12 de abril de 2024.

A los exclusivos efectos de oponerse a la completitud de la información facilitada en ese informe en relación con la solicitud inicial de la reclamante, podrá ésta volver a formular reclamación ante esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia en el plazo de un (1) mes.

CUARTO. - En todo lo demás, la presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS (2) MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.